

URUMEA IBAI INGURUA BISITARIANTZAT EGOKITUA DU UGALDET XO JATET XEAK

Maria Isabel Balerdi arduraduna:

«Naturara, lasaitasuna eta ibaiaren soinu berezi hori bilatzen dute etortzen direnek»

Koadrilentzat, familientzat... ordu batzuk Urumea bazterrean pasa nahi dituztenentzat egokitutako gunea du Ugaldetxo jatetxeak, orain 40 urte ingurutik.

HEZEA joan da udaberria; uda hasiera berriz, eguzkitsua eta beroa. Bi fenomeno horiek lagundu dute Urumea bazterrek inoiz baino berdeago, ederrago egotera. Eguzkiak berotzen duen egun horietan, asko dira egun pasa, Urumea bazterrean joaten direnak. Ugaldetxo jatetxeak parean dituen zelaiak, ibai bazterrek, egokituak ditu aspalditik, Urumea ondoan freskatu nahi dutenentzat. Hernaniko Kronika Maria Isabel Balerdi Ugaldetxoko arduradunarekin elkartu da, izaten den mugimendua bertatik bertara ezagutzeko gogoz.

Orain 40 urtetik bisitariarentzat egokitua

Urumea ondoan halako zelaiak izanda, Maria Isabel Balerdiaren gurasoei bururatu zitzairen, orain 40 urte inguru, bisitariarentzat txukundu eta egokitzea: «nik txikitatik ezagutu dut hala. Mahai batzuk baditugu, baina ez asko. Koxtearekin sartzen dira zelai barrura, eta normalean norberak ekartzen du behar duena: mahaiak, aulkiak, tunbonak; barbakoak egiteko aukera ere ematen diegu, beti ere, be-



Maria Isabel Balerdi, Ugaldetxo parean dagoen zelai egokitua atzean duela.

raiek ekartzen badute». Prezioa lau eurokoa da, kotxeko.

Plan perfektua naturaz inguratu nahi dutenentzat Ekainean hasten da mugimendua Ugaldetxo inguruan. Ura fresko-fresko egoten da eta zuhaitz azpitantzala; plan perfektua, naturaz inguratu nahi dutenentzat: «eguraldiak laguntzen badu, uda hasieratik izaten da jendea. Natura eta lasaitasuna bilatzen dute Ugaldetxora inguratzen direnek. Errioko urak ateratzen duen soinua ere berezia izaten da, eta asko horrek erakarritza etortzen dira».

Urteak pasa ahala, ohiturak aldatzen joan direla dio Balerdik: «Orain urte batzuk ona egiten bazuen eta jai

«Ohiturak aldatuz joan dira; Lehen ona egiten bazuen eta jai eguna tokatzen bazen jendetza inguratzen zen, eromena izaten zen hura»

eguna tokatzen bazen kotxe ilarak izaten ziren, eta karretera bazterra, leporaino; eromena izaten zen. Orain aldatuz joan da. Astez Hernaniko koadrilak etortzen dira gehienbat, bizikleta gainean, arratsalde pasa. Asteburu eta jaiegunetan berriz, bertakoak baino gehiago, kanpokoak izaten dira orain; bai inguru-

ko herrietatik etorritakoak edo Hego Ameriketatik Euskal Herrira bizitzera etorritakoak. Hauek plan lasaierekin etortzen dira, familia giroan, eguna pasatzera».

«Ibai ingurua ez dute behar adina zaintzen»

Jendeak ibai ingurua eta natura zaintzen duen galde-tuta, Balerdik ezetz dio: «hondakinak sailkatzeko ontziak jarri genituen, eta ez zuen ia inork errespetatzen. Zaborra sailkatuz gero guk jasotzen diegu; bestela, eraman egiten dute. Eta gutxi batzuk badira bertan uzten dutenak. Saiakera egin dugu, eskuorriak banatuz, azalpenak emanaz... baina alperrik! zentzu honetan oraindik lan asko dago egiteko». ||

AEK EUSKALTEGIA

Norberaren beharretara egokitutako eskaintza, ikasturte berrian

Izen ematea irailaren 2tik aurrera izango da zabalik

2013-2014 ikasturtean euskera ikasi nahi dutenentzat aukera zabala jarri dute AEKn: euskalduntze taldeak, azterketak lantzeko taldeak, autoikaskuntza... eta beste hainbat metodo, ikaslearentzat ahalik eta erakar-garri eta erosoan izateko. AEKtik gogoratu nahi dute euskera ikasi nahi duen edonork duela lekua bertan, hala nola, familian edo lagunartean euskeraz aritu nahi dutenek, umeekin hitz egin nahi duten gurasoek, lankideekin euskeraz aritu nahi dutenek... eta beste abar luze batek. Klaseak goiz, eguerdi, arratsalde eta iluntzean izango dira. Izen ematea irailaren 2tik aurrera izango da zabalik.

Aukera zabala, banaka edo taldeka

Euskalduntze taldeak aukeratzen dituztenek astean 2, 3 edo 4 egunez izango dituzte klaseak eta euskaltegian jasotakoa kanpoan erabiltzeko aukera izango dute.

Azterketak prestatu nahi dituztenek astean 2 edo 3 egunetan izango dituzte klaseak eta 15 egunetan behin tutoretza pertsonalizatuak.

Autoikaskuntza nahia-gotzen dutenek berriz, astean behin edo bitan eskatu dezakete tutore baten laguntza, ikasleak berak nahi duen ordutegian.

Euskaltegi barruko eskaintzaz gain, AEKk beste hainbat metodo ditu euskera lantzeko, hala nola, Zilegi Eskolak, irteerak... ||

SAN MARTIN DE UNX ETA FELIX LARREINAREN ARDO OSPETSUAK

Urtekoa eta kriantza. Garraioitxoak, 5 L. eta 15 L. Gorria, beltza urtekoak.

HIBAI taberna
Karmelo Labaka 12

RIOJA
Felix Larreina

ETXERA ERE ERAMATEN DITUGU: 692 917 667

ARALAR TABERNA

GIRO EDERRA ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8
943 33 15 06

SARETXO

San Inazio eguna dela eta, **TRIKITXA** izango degu

Zatoz egun eder bat pasatzera.

Marraka-Enea Baserria - Sta Barbara auzoa 92
Tel.: 943 556 481-943 554 675

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
 ● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● **Gauz:** Aldabe Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

EGURALDIA ● **GAUR** Goizean eta iluntzean lainoak izango badira ere, giro eguzkitsua espero da. Temperatura jaitsi egingo da, zertxobait: Min.18° / Max.26°
 ● **BIHAR** Goizeko aurreneko orduetan laino batzuk izango badira ere, giro eguzkitsua espero da. Tenperaturan aldaketa askorik ez: Min.17° / Max.24° (euskarainet)

III. BURUNTZALDEAKO TXAPELKETA



Lau finalak jokatu zituzten pelotariak, elkarteetako delegatuekin.

Alain Agirre irabazle eta bost hernaniar azpitxapeldun, atzoko finaletan

Agirrek infantil mailako txapela jantzi zuen, Berasarteri irabazita. Gainontzeko hernaniarrek duten jokoa erakusteko aukerarik ez zuten izan.

BURUNTZALDEAKO txapelketako lau final jokatu ziren atzo Kirolegian, eta Hernanik, ordezkaritza izan zuen guztietan. Ez zuten egunik onena izan ordea, eta Alain Agirre izan zen txapela jantzi zuen bakarra.

Infantil mailan irabazi zuen Alain Agirrek, 18-11, beste hernaniar baten kontra: Ioritz Berasarte. Partidua nahiko berdindua joan zen,

baina Agirre nagusi izan zen batez ere, azken tantoetan.

Kadete eta senior mailako partidua azkar joan ziren. Arrue eta Aizpuru andoaindarrak faborito ziren Pagola eta Rodriguez hernaniarren kontra, eta hala erakutsi zuten aurreneko momentutik. Emaitza, 18-5. Senio-urretan Real Sociedadeko Odriozola eta Errazkinek eraman zuten partiduko pi-

sua. Esnaolak, atzelari hernaniarrak, ez zuten egunik onena izan; eta Urkizu aurrelariak partiduan sartzeko aukera gutxi izan zuen. Partidu azkarra izan zen, 18-2, Realeko bikotearen alde.

Eta jubenetan, Altuna anaiek gogor borrokatu zuten azken momentura arte, baina Azpiroz eta Aburuza nagusi izan ziren atzokoan, 18-13 irabazita. ||

❖ ELKARTASUNA

Hernaniko argazkiak, salgai

Hernaniko argazkiak jarri dituzte salgai, lehengoak eta oraingoak, Irizar eta Zinkoenea tabernetan. Dirua Wukro Elkarteari laguntzeko izango da. ||

◆ ESKUBALDIA

Bideoa grabateko deia, etzi

Eskubaloien historia bilduko duen bideoa grabatuko deia etzi, 18:30etan, Kirolegian. Eskubaloiarekin lotura izan zutenekin egin diete azaltzeko deia. ||

❖ OMENALDIA

Elias Querejeta omenduko dute bihar

Elias Querejeta zinegile hernaniarra omenduko du bihar Euskadiko Filmetegiak, Zinemaldiak eta SADEK. Principe zinemari izango da, 20:00etan. ||

Literatur txokoa

Bultzatzaileak:



Hernaniko Udal Liburutegia

AINARA AIESTARANEK GOMENDATZEN DIZU



612 EURO

Jon Arretxe

Erein 2013

Irakurlea lehenengo orritik harrapatzen duen eleberria da.

Bilboko San Frantzisko auzoan bizi da Toure afrikarra. Bolada txar batetik pasatzen ari den momentuan ustezko anaia baten bisita jasoko du, eta honek arazo larriak sortuko dizkio, lapurretara, droga-trafiko eta hilketara kasuetan belarrietaraino nahastuko dutenak. 612 euro instituzioek behartsuenei hilero ematen dieten kopurua da, sanfrantziskotar askoren esperantza bizirik irauteko.

"19 kamera" eleberriarekin hasiera eman zion bideari jarraipena ematen dio eleberri honekin.

Liburua gomendatu nahi duenak, kontuan izan beharrekoak: euskerazko liburuak gomendatu behar dira; 800 karaktere inguru idatzi; eta izen abizenak jarri. Bidaltzeko: dobera@dobera.com edo liburutegi@hernani.net. Edo paperean eraman Doberara edo Udal Liburutegira.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

27 URTE HIL ZELA
 2013ko uztailaren 28an
FERNANDO ROS 'NAPARRA'
 HIRE IZARRA ZERUAN DALA
 HOGHEITA BOST URTE DIRA
 TARTE LUzea, TARTE GOGORRA
 NOLA PASA DAN DENORA
 ETEN GABE IZAN DAN BORDIAZ
 DENA DUDA AURRERA
 ET ZARA IZANGO GURE ARTEAN
 IKUSTEKO EGOERA
 SORBU DAN ZIKLO BERRI HONEN
 JENDE ASKO BILDU GARA. (55)
 PRESOK ETXERA I
 HESLARIAK ETXERA I
 HERNANIK, 2013ko uztailaren 28an
ZURE LAGUNAK

ESKERTZA
Mariano Sanz Garcia
 Orain egun gutxi hil zen Hernanin
 - Goian bego -
 Haren emazteak, seme-alabek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaretzen guztiei eta baita elizkizunetara etorri zireten guztiei ere.
ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Akordeioa salgai, Zero Sette markakoa. Deitu: 686 679 075

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antena ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Irigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

TOKYO Abuztuaren 23an Bartzelonatik hegaldia + 6 gau 3* Hotelean alojamendua	979'00 €	IBIZA Abuztuaren 18an Bilbolik hegaldia + 7 gau 2* Hotelean alojamendua	504'00 €
RIVIERA MAYA Abuztuaren 26, 27 eta 29an Madrildik hegaldia + 7 gau 5* Hotelean TI	895'00 €	MENORCA Abuztuaren Bilbolik hegaldia + 7 gau 3* Apartamentuan alojamendua	555'00 €
GAMBIA Abuztuaren eta irailaren Bartzelonatik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean gosaria barne	655'00 €	LANZAROTE Abuztuaren 28 eta 30ean Bilbolik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean pentzio erdian	470'00 €
ROMA Abuztuaren 28an Bilbolik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean gosaria barne	590'00 €	BENIDORM Abuztuaren 7 gau 3* Hotelean pentzio osoan 2 heldu + ume 1	642'00 €
TUNEZ Abuztuaren 30tik 24ra Bilbolik hegaldia+4 gau zirkuito+3 gau hondarizan 4* Hotelean	570'00 €	SANLUCAR DE BARRAMEDA Abuztuaren 17an 7 gau 3* Hotelean pentzio erdian	480'00 €

AUKERA GEHIAGO

www.bidaibila.com

HERNANI
 BIDATAK
 Urtaria 6
 943 33 00 49
 www.hernanibidaiak.com